

Aurreko hori pozik egoteko modukoa izanik ere, ez dakit noraino zuzendu ahal izango den orain arte euskarazko kateek —Euskadi Irratiak eta ETB1ek batez ere— izan duten azpigarapena. Eta ez dut uste zuzendaritzaren errua denik euskarazko kateen egoera. Alderantziz, uste dut horixe dela EITBko zuzendaritza taldearen kezka nagusietako bat. Baina orain arte ez da asmatu, eta asmatzen ez den bitartean, herren geratuko da euskararen erabilera normalerako garrantzizko deritzodan osagai bat. ¶



## Allande Sokarros

Aldizkari honetako Euskal Kulturaren urteko balantzea egitean esku hartzen dudanetik, Zuberoako kultur gaiak izan ditut beti hizpide eta aurten ere ildo horren lantzeari ekinen diot. Ez irudimen eskasagatik —hala espero dut behintzat—, bai, ordea, aipagai hauek ditudalakotz hobekien ezagutzen edota bizitzen, alde batetik, eta bestetik, aldiz, ez baitira hainbestearaino aztertuak euskal hedabideetan.

### Urte oparoa berriro ere

Aurten ere urte oparoa izan da Zuberoako euskal kultur alorrean. Gamere-Zihiga eta Eskiulako maskaradak, *No-la bizi, hala kanta* kantaldiak, *Herria ohoretan* antzerkia, *Matalaz*, *Lauburu* eta *Zamalzain* ikus-entzunezkoak, *Ürüti Jaungiko Peirot* pastorala, Xiberoko Botza euskal irratiaren 20. urteurrena, hurrenez hurren. Urte joria bai Zuberoako euskal kulturarentzat, duda barik... baina honen guztiaren sustrai nagusia izan beharko lukeen euskararentzat, aldiz, hainbestearako egia al da? Nire iritzian, tamalez baina, ezetz argi eta borobil batez erantzugo nioke galdera honi.

Baikortasunaren ikuspuntutik abiatzekotan, haatik, eta Zuberoaren alderat beste euskaldun edo euskal herritar askok daukaten mitifikazioa hazteko arriskuarekin, erango nuke berriro ere nabarmen egon dela herrialde honetan kultura biziberritzeko eta hazteko den gaitasuna. Alde honetatik bakarrik ikusita, gogoan eduki dezagun 14.000 bizilagun inguruko jendetza orokorreko gutxiengo batek soilik datxikiola euskal kulturari. Horiek horrela, euskaldun edota euskaltzale gutxiengo horren eskutik sekulako borondatea, kemena eta gaitasuna azaltzen da euskal kultur ikusgarriak sortzeko, atontzeko eta plazaratzeko.

*Nola bizi, hala kanta, Herria ohoretan, Matalaz, Lauburu eta Zamalzain* ikus-entzunezkoen edota *Ürrüti Jauregiko Peirot* pastoralaren agerraldiak gozatzearekin soilik ohartu daiteke egundoko lana badela honen guztiaren atzean. Nabari da hain jendetza urrikoa den herrialde batean, horrelako kultur lanak gauzatzeko, hitzetan zertzeko, nahiko zaila den gizarte ezaugarri bat badela. Zuberoako euskal kultur munduan badira eragileak —nolabait esatearren— Herkulesen lanekin antzekotasuna duten horiek guztiak sortzeko ahalezkoa egiten dutenak.

## **Zuberotarrei gustukoa zaie kultura biziberritua**

Guztiaren hasieran, badira sortzaile edota bultzatzaileak, jakina. Euskal jendearen gogoia pizteko eta hazteko ez balira hor izan Jean Bordaxar, Jean-Louis Bidabe, Ixabel Barreix, Ttittika Rekalt, Mixel Etxekopar, Patrick Keheille, Pier-Paul Berzaitz, JohaÑe Etxebest, Jean-Louis Davant, Niko Etxart, Jean-Pierra Rekalt, Luzien Afios eta izendatzea ahaztu izana barkatuko didaten beste zenbait, hau guztia nahiko zaila —ezinezko?— izango zen.

Zuberoan bertan, arrakasta zabal eta merezitua jaso dute kultur lan hauek denek. Orainokoan nabarmen geratzen da zuberotar jendeak —euskaraz hiztun izan ala ez— bere euskal kultura maite duela eta biziberritu egin dadin gustukoa zaiola. Alta bada, *Matalaz, Lauburu eta Zamalzain* ikusgarrietan, klasikotasun batetik irteten eta nahiko urrun joaten ziren gauza anitz baten; *Herria ohore* -

*tan* lanak, berriz, idazle gazte baten lehen urratsak izatea eta Zuberoan oso gutxi azaltzen den euskarazko antzerki bat taularatzea zituen nolabait gainditu beharreko oztopoak; *Nola bizi, hala kanta* kantaldi sortak Zuberoako kantagintza tradizionalaren eraberritzea islatzen zuen; eta *Ürriiti Jauregiko Peirot* pastoralean eraberritze bideko urrats berriak —hala nola balet dantza bat— baziren. Jendea trumilka jin da, hargatik, eta gertaera horrek agerian utzi du, beste behin ere, Zuberoak gogoan hartu duela kulturak sorkuntzaz eraberrituta jarraitzen duela bizirik. Zuberoako euskal kultura biziduna Zuberoan bertan preziatua eta sustatua izatea funtsezko kontu bat da, jakina, bazterketan lan egitea oso neketsu eta gogo suntsigarri baita. Alabaina, ondo legoke Zuberoatik kanpo ere kultur lan hauek ezagututa eta plazaratuta izan daitezen. Oraingoz, haatik, eskabide oso gutxi etorri da Zuberoa hainbeste miresten eta goresten duten beste euskal herrialdeetatik. Oraindik ez da beranduegi, hargatik.

### **Diglosia madarikatu hori...**

Izendatu ditudan kultur agerraldi hauetatik edozeinen ikusterat joan izanda, ohartu zitekeen kartsutasun handi eta zirrara berezi batez bizitzen zituztela zuberotar ikuslariak. Nabari da Zuberoako jendeak maite duela euskal kantua, maite ere pastorala eta maskaradak eta guzti-guztiaren gainetik dantza-jauziak. Zer esanik ez osagai hauek guztiak bateratzen dituen ikus-entzunezkoek, hauek oso eraberrikoak izanda ere. Berriz ere iritzi diot zuberotarrek sorkuntzari eta berriztatzeari ongi etorria diola, kultur agerraldietan euskal kantuak eta dantzak aurkitzen baditu.

Zuberoako jendea euskal kulturari errotik atxikia dela ondoriozta daiteke... kontu oso kezagarri bat ez balitz aintzat hartu behar, hau da euskararen egoera lazgarria. Lazgarria bai, zeren eta, aipatutako kultur ikus-entzunezko hauetatik ia guztietan —Muskildiko gazteek atondutako eta aurkeztutako *Herria ohoretan* antzerkian ezik— erdara izan baita harremanetarako hizkuntza nagusia. Eta hortxe dago, hain zuzen ere, koska. Zer erran nahi du eus-

kal kultur lan oparoak, ederrak, bihotz altxagarriak, zirragarriak egitea... hauentzat eta hauetan erabiltzen den gure euskara bazter uzten bada agerraldia hasi aurretik eta amaitu ostetik? Guztiz penagarria da, oholtza gainean gure euskal izaeraren lekuko eramaileak diren artista edo jokalari haiek frantsesez barra-barra egiten entzutea agerraldiaren saihetsean eta, oro har, euren eguneroko bizian.

Penagarria bai, ulertezina ez, haatik, euskararen kinka larri honen azalgarri baita Zuberoako eta oro har Ipar Euskal Herriko gizarteak bizi duen diglosia egoera itzela. Hitz arraro honek esanahi argi bat dauka, hau da, bizitzeko eta garatzeko baliabide guztiak eskuko dituen hizkuntza —frantsesa, alegia— dela, nahitaez, denetan eta beti nagusitzen. Gizartean eta gizalagunen artean baliotasunik eta ahalbiderik ia ez duen mintzairak, aldiz —euskarak, beraz— harremanetarako funtzioa bera galtzen du, euskaldunen artean ere! Diglosia egoerari gogor egiteko, baikoitzaren borondatea eta oharkuntza ez dira nahikoak, anitzek uste duten legez. Gure hizkuntzaren salbatzeko, sendotzeko eta garatzeko baliabideak behar dira baitezpada eskuratu eta hauek eskuduntza politikoak bakarrik ematen ditu. Euskara eta honetan sustraitutako eta hazitako euskal kultura biziko dira, gure herri notasunaren bermatzeko ahalez jabetuko garen neurrian.

## **Berrogei urteren petik euskararik ez**

**H**o metarako denbora gehiegirik ez zaigu geratzen, egoera beti eta larriagoa bihurtzen ari baita. Erabat ezkorra nagoe-la erranen du baten batek baina beste euskal herritarentzat mitikoa den Zuberoa honetan euskara hiltzorian dela a argi eta garbi behar da behingoz erran. Siadeco giza-azterketa etxeak orain dela hamarkada bat-edo egin zuen ikerketa lanaren emaitzak guztiz baikorregiak —ez nuke esan nahi gezurrezkoak— ziren. Hauen arabera, zuberotarretatik %70ek euskaraz bazekien eta erdiak baino gehiagok iritzi zion nahiko ondo mintzatzen zuela. Nirea ez da ikerkuntza zientifikoa, irizpide jakinez moldatutakoa, ego-kitutakoa, zuzendutakoa, baina ziurtatzen dudana da Zu-

beroan, gaur egun, 40 urte baino gutxiago duten herritarren artean ez dela ia euskarazko hitz bakar bat ere aditu-ko, karrikan ezta etxeetan ere. Ongi irakurri duzue bai: 40 urteren petik euskaraz uneoroko ohituraz berba egiten duen zuberotarrik ia ez da aurkituko, ezta herri 'euskaldunenetan' ere! Pentsa orduan, haurren eta gazteen artean zelako egoera den... Orogen buru, zer gertatuko da egoera lazgarri honi buelta ematea ez badugu lortzen? Zuberoan, euskal kultura folklore hutsa bihurtuko dela. Euskalgintzaren munduan murgilduta gaudenok jakin badakigu zer den kultura eta folklore artean funtsezko ezberdintasuna: kultura da bere nortasuna bizirik duen herri baten adierazpidea eta folklorea, berriz, mamia galdua duen itxurakeria besterik ez da. Galbide horretatik baztertuko garela-ko itxaropena badut oraingoz, baina amildegi ilunetik beti eta hurbilago garamatza herritar ugariaren ezaxolak. Euskal kulturako ikus-entzunezkoak hain kartsuki bizitzen dituzten horien eguneroko eta ohartugabeko axolaez horrek berak...

### **Xiberoko Botza, euskaldunen ahotsa**

Hogei urte igaro dira baina ongi gogoratzen naiz. Agorri-lako larunbat arratsalde bat zen, 16:00ak inguruan. Hala-koren batean, nire anaiaren autoko irratigailuan, *Agur Xi-beroa* airatu egin zen. Hau bururatu bezain laster, ezagun zenbaiten botzak aditu nituen gure Zuberoako euskaraz hitz egiten, gureak ziren kontuak aipatzen, gure herriaz mintzatzen. Ezinezkoa zait, gaur egun ere, aldi hartan bizi izan nituen eta beste zenbaitek bizi izan zituzten une haiek sortutako zirrara hitz soilez adieraztea. Lehenengoz genuen gure mintzairaz, gure herria aipagai entzuten, irrati tresna baten barnean. Gogoan eduki behar dena da, mundu zabalari aspaldidanik demokrazia lekzioak ematen dizkion 1982. urteko Frantzia hartan irrati adierazpen askatasuna berriki finkatutakoa zela: urte bat lehen zehazki, François Mitterrand Errepublikako lehendakartzara iristea-ren ondorioz. Aurretik Frantzia 'demokratiko' hartan, Paristik zabaldutako albisteak, musikak, kantuak, kultura

esapideak, ikuspuntuak soilik entzun zitezkeen, gehienik publizitate plazaratzaile ziren beste hiru irrati periferikoez gain.

Egoera lotsagarri honi aurre egilerik izan zen, haatik. Ipar Euskal Herrian, Alexandre de la Cerda bultzatzaile zuen Radio Adour-Navarre irratiak ez zuen Mitterrand agintera iristea igurikatu funtsezko adierazpen askatasun honen eskubidea aldarrikatzeko eta obratzeko. Mugaz bestaldean jarritako hedagailu bati esker, Frantzia ez hain demokratikoari bere maltzurkeriaren isla aurpegira bota zioten Alexandrek eta bere irratiko lankideek. Euskal kut-suko irratigintzaren lehendabiziko bide urratzaile honi agur eta ohore esan nahi nioke egun. Berak irratigintzan abiarazitako eta trebearazitako lagun asko aurkitzen dira gaur egun ere Ipar Euskal Herriko irrati eta telebista heda-bideetan.

Xiberoko Botza sortarazi zutenen artean ez zen izan, ordea, Alexandre de la Cerdaren eskolako lagunik. Hala eta guztiz ere, kemena eta herriaren maitasuna izan zituzten bultzagarri. Egia bada ere Zuberoan dauden Frantzia-ko Alderdi Sozialistako kide bakanetatik zenbait izan zire-la Xiberoko Botzaren hasiera hartako bidelagun, hauek aski laster utziko zuten euskal iratiaren aurrera egitea euskaltzale eta abertzaleen eskuetan. Inor ez da bilakaera horretaz harrituko: Euskal Herriarentzat euskal nortasu-nezko herri ikuspegia dutenek bakarrik eraman zezaketen aurrera euskal irrati baten egitasmoa. Halaxe egin dute igaro diren hogeitau urteotan, nekezia eta gaitzaldi batzuk gorabehera, baina poztasun une ugari biziz eta herriarentzat zerbitzu publiko baten betebeharra egitearen ohar-kuntzaz ere.

### **Xiberoko Botza gehiago, France Info gutxiago...**

Gaur egun, Xiberoko Botza, Euskal Irratiak egituraren osagai dago, Nafarroa Behereko Irulegiko Irratia eta Lapur-diko Gure Irratiarekin batera. Horrek badu abantaila anitz, hauetatik lehena delarik elkarlanean aritzea eta ez nor be-re xokoan bakarrik. Halaber, Ipar Euskal Herriaren osota-

sun ikuspegi bat hazten du. Makurrak ere izan ditzake, hala nola irratian erabilitako euskararen puntutik. Behin eta berriro ohartu naiz, Zuberoako euskara sustatu, sendotu eta hazi egitearen orde, Euskal Irratiak egiturako lankidetzak ahuldu egiten zuela. Burura berehala zetorkidan adibi-dea da 'alkartea' hitzarena. Alkartea ahoskatzearen orde, 'elkartea' entzuten da sarritan Xiberoko Botzean. Hori zuzena da Nafarroa Behereko edo Lapurdiko euskaldun baten ahoan, ez ordea zuberotar baten hizkeran. Garrantzi gutxiko zerbait dela pentsa dezakeenik egon daiteke baina ez uste izan hala denik. Euskal irрати baten zeregin nagusietatik bat da hizkuntzaren sendagune, bermagami eta lekukotasun izatea. Ez badiot garrantzi soberarik ematen ere, beste kontu bat da Ipar Euskal Herriko 'sasi-batua' deituko nukeen hizkera batera irristatze honek beraien iritzi traketsen indartzen dituela «Xiberoko Botzean ez dūe egiazko euskara emaiten» esan ohi duten horiek.

Azken batean, hargatik, euskalgintzan gutxi edo aski jarduten dugunon eginkizuna da Xiberoko Botzeko lankideak laguntzea euskararen erabilera ahal bezainbat ego kienean. Jean-Louis Davant euskaltzainak ezik, ez diegu laguntza beharrezko hori eskaintzen orain dela hogeitau urte gure bihotzaren altxagarri izan zen gure herriko irрати honen egungo lankideei. Urte zahar, urte berri garai hauetan agiantzak egitea komeni denez, hitz ematen dut, hementxe bertan, nire ahal xumeekin, laguntza ematen saiatuko natzaiera Xiberoko Botzekoei, euskal irрати hau egunean zehar denbora gehiagoz eta arreta handiagoz entzunda eta nire irratigailua nabarmen gutxiago baliatuta kazetari lanak entzuterat erakartzen nauen France Info erdal irratitari adi egoteko...¶